

Helduen hezkuntza iraunkorra eta liburutegi publikoa: Europako Grundtvig programa barnean aurkeztutako truke-proiektua

Martin SARAGUETA* y Luis LUCAS**

IRUDI DIGITALA ETA ONDARE KULTURALA

Laburpena

Hemen aurkeztu dena Kortés eta Aurizberriko liburutegi publikoetan aurrera eramaten ari den kooperazio proiektu bat da. Koordinadore lanetan dihardute bertze bi elkarkidekin osatzen duten lantaldean Europako Sokrates-Grundtvig programaren barnean. Proiektuaren eremua —izenburuan erran bezala— helduen hezkuntza iraunkorrean datza, zeinak maiz liburutegien munduan “erabiltzaileen formakuntza” izena jasotzen ohi duen.

Hasierako izapideak, lantaldearen osaketa, proiektuak irauten duen bi urtetarako aurreikusitako ekintzak, liburutegien erabiltzaileenganako eragina eta abarreko xehetasunak saiatuko gara azaltzen.

35

Sarrera eta bide administratiboa

1. Hasierako ideia —gure herrietako argazki zaharren berreskuratze eta liburutegietan egoten den hezkuntza informalearen inguruan lan egitea— Kortésko liburuzainaren lanbide-interesatik sortzen da. Ekintza mota hauek PAP-Grundtvig (lehen Sokrates-Grundtvig zena) programaren barnean sartzen zirela bermatu ondoren, Aurizberriko liburuzainarekin kontaktuan jarri zen elkarren artean kooperazio proiektu bat diseinatzeko asmotan, bertan helburu nagusia liburutegien erabiltzaileen parte-hartze aktiboa izanik.

Orduan hasi ziren administrazioarekin lehenengo kontaktuak, bai udal arduradunekin, bai Nafarroako Liburutegi Zerbitzuarekin, haien baimena ezinbestekoa baitzen kandidatura onartua izan ahal izateko. Izendun balioko baimena baino ez zen zeren eta alde praktikotik bazter guztiak garbiak baitziren: Grundtvig programak gastuen ehuneko ehuna betetzen zuen eta proiektuak eguneroko lan eskemari aldaketa nabarmenik ez zekarkion.

Nagusien onarpena eskutan, gure kandidatura aurkeztu genuen Europako Hezkuntza Programetako Erakunde Autonomoaren aurrean (OAPEE <http://www.oapee.es>). Hasieratik erakunde honen oniritzia eta laguntza jaso genuen batez ere liburutegi publikoak izateagatik.

* Aurizberriko Liburutegi Publikoa

** Cortésko Liburutegi Publikoa

“Ikaste-Elkarte” batean parte hartu ahal izateko gutxienez Europako bertze bi herrialde ezberdinen kide bana aurkitu behar dira, eta hau lortu ahal izateko bi bide dira erabilgarri: PARTBASE datu basea kontsultatuz —truke-proiektutan interesaturik dauden erakundeen zerrenda— (<http://partbase.programkontoret.se/framees.htm>) edo “Kontakturako Mintegi” batera joan (PARTBASEN bitartez erakunderen batekin kontaktuan jarri bazara, Kontaktu Mintegi batean harekin elkartu ahal izateko prestatze-bisita bat eskatu dezakezu). Guk bi bide horiek jorratu genituen emaitza ezberdinekin.



2. Montecatiniko Kontakturako Mintegia “Comenius Grundtvig partnerships working towards Lifelong Learning Programme (Italia, 2006ko azaroaren 29tik-abenduaren 3a arte). Kontakturako Mintegiak Europako Sokrates programetan parte hartu nahi duten erakunde edo irakasleentzat topaguneak dira. Mintegi hauek aldez aurretik zehaztutako gai bat jorratzen dute eta estatu bakoitzeko Sokrates Agentzien plangintzan daude, beraz aise kontsultatu daitezke norberaren neurriko bat aurkitzeko.

Montecatinin Europako herrialde guztietako 130 ordezkari elkartu ziren. Erakunde bakoitzak stand batean haren aurkezpena egiteaz gain, proposatzen zuen aurreproiektuaren berri ematen zuen, eta gehienetan norberaren lurralde eta administrazioaren xehetasunak eskaintzen ziren (politika, gastronomia, geografia...). Guretzat mintegi hau Interneten bitartez lortutako kontaktuak baino askoz ere baliotsuagoa izan zen. Gure iritziz malgutasun handiarekin joatea garrantzi handiko kontua da; beharbada aurreproiektu on batekin agertuta ere, askoz ere elkarlode hobeak dituzten proiektuak aurki daitezkeelako.

36

3. Proiektuaren idaztea. Mintegiaren ondorioz lau kide-talde bat osatu zen (Nafarroa –2–, Italia, Turkia eta Lituania), gehi Montecatinin egindako kontaktuei esker lortutako bi kide berri (Frantzia eta Finlandia). Denen artean eta Internet lanabesa zela, hiru hilabetez proiektuaren behin betiko idazteari ekin genion. Kide bakoitzak bere estatuko agentziari aurkeztu eta emaitza desberdinak jaso genituen: Lituania, Turkia eta Italiako agentziek ezetza eman zieten herrialde horietako kandidatuei (diru falta arrazoi nagusi) eta bertze hiruk onartu. Azkenean lan taldea honela gelditu zen:

Korteko Herri Liburutegia (Nafarroa)

—3.500 biztanle. Nafarroako hegoaldean.

—Nafarroako Gobernuko liburutegia. Udala instalazioen arduraduna da eta finantzaketan parte hartzen du.

<http://bibliotecacortes.googlepages.com>

<http://www.villadecortes.com/>

Aurizberriko Herri Liburutegia (Nafarroa)

—250 biztanle (Aurizberri), Nafarroako iparrean. 3.000 biztanle bere eragineko inguruan.

—Nafarroako Gobernuko liburutegia. Herrien mankomunitatea finantzaketan parte hartzen du.
<http://herrilib.en.wanadoo.es/home.html>
<http://www.erroibar.net/>

Hämeenlinna's Settlement. Hämeenlinna (Finlandia)

—48.000 biztanle, Häme lurraldean kokatuta, Finlandiako hegoaldean.
—Finnish Federation of Settlements-en barnean lan egiten duen 40 taldeetako bat da.
—Hämeenlinna's Settlement-en helburuak gizarte ekintzak eta finlandiar eta etorkinen arteko integrazioa bultzatzea dira. Bi hiritar multzo hauei hezkuntza ekintzak zuzentzen zaizkie.
www.hameenlinna.fi
www.hmlsetlementti.net

Espace Publique Multimédia de Kerourien. Brest (Francia)

—250.000 biztanle. Bretañako garrantzi handiko hiria.
—Espace Publique Multimédia Kerourien auzoan garatzen ditu bere aktibitateak. Bertan etorkinen eta famili gutxietsita kopuru handia dago.
—Udalak mantentzen du eta elkarlana Kerourieneko Giza Zentroarekin betetzen du. Frantzia osoan dagoen "Ligue de l'Enseignement" erakundearen parte da.
<http://www.mairie-brest.fr/>
<http://kerourien.blogspirit.com/>

4. 2007ko azaroaren 12 eta 15a bitartean lau elkarkideen lehenbiziko bilera izan zen. Norberaren Agentzia Nazionalak behin betiko onarpena adierazi ondoren izan zen Kortesen lehenbiziko bilkura hau. Hau proiektuaren benetako hasieratzat har daiteke. Bilkuraren helburuak elkarren ezagutza pertsonala, norberaren erakundeari buruzko informazioak aldatzea eta batez ere hurrengo bi urteetan bete behar genituen ekin-tzen planifikatzea izan ziren.

37

Helburua

Hona hemen PAP-Grundtvig-ek berak zehaztutako zenbait helburu, batez ere gure ikuspegitik bat datozenak hain zuzen ere:

- Herrialde diferentetan helduen hezkuntza eta kulturarekin lotuta dauden erakundeen elkarren arteko ezagutza lortzea.
- Kulturen arteko elkarrizketa bultzatzea.
- Proiektuaren aldi guztietan ikasle helduen parte hartze sustatzea (planifikatzean, martxan jartzeko tenorean, ebaluazioan...) eta honela, erakundearen egunerokoan haien parte hartze aktiboa lortzeko.
- Emakume eta gizonentzat proiektuan sarbide orekatu eta bidezkoa bermatzea.
- Jende nagusiaren hezkuntza beharrak ezagutzea, eta behar hauen asetzeko behar izango diren estrategiak diseinatu, esate baterako, ikas-lekuak sortzen gizarte zentroan edo tokietako liburutegi publikoetan.

—Aldaketei aurre egin ahal izateko behar diren tresnak ematea adineko jendeari, arreta handia jarriz teknologia berriko tresnetan.

Proiektua zela eta helburu xumeak nahi genituen, xumeak baitziren gure tresnak eta lan indarra. Zerbait behar bezala bete nahi bagenu praktikotasunari begira egotera behartuta geunden. Horregatik arestian zerrendatutako helburuak gure liburutegietan ezartzeko honela berregin genituen:

—Liburutegiko erabiltzaileen formakuntza irudi eta komunikazioko teknologi berrietan eskaintzea (lehenasuna emakumezkoei emanda, haiek baitira gure herrietan teknologia berrien inguruan behar haundiago dutenak).

—Behar bezalako garrantzia ematea norberaren ondareari: liburutegiko erabiltzaileen argazki zaharren bildumak digitalizatzen irakasten, eta baita editatzen eta euskarri digitaletan muntatzen.

—Ondare kolektiboari behar bezalako balio ematea erreferentzia katalogo bat eraikitzen erabiltzaileek ekarritako inguruko argazki zaharrekin.

—Liburutegia ikusgarri bihurtzea, eta eskaintzen dituen zerbitzuen publizitatea egitea: gaur egungo erabiltzaile eta erabiltzaile bilakatu daitezkeenean ikus dezaten liburutegia modu diferente batean, hezkuntzarako zentroa bezala, ingurune teknologikoa bezala, edo proiektu eta ekintza diferentetarako topagunea bezala.

38

—Elkarren arteko harremanak, elkarrizketa interkulturala eta trukeak hastea Europako beste hainbat erakunderekin, batez ere tamaina bereko edo antzeko inguru edo baliabideekin baldin badabilta. Honela liburutegia eredia bilakatuko da eta bultzatuko da gure eskualdeko beste elkarte beren proiektu propioak has dezaten.

—Isolatez profesionala haustea ezaugarri bereko liburutegi batekin kooperazio lana egitean.

Horrela ikusita —azken produktua lau elkarkideen artean argazki zaharren erakusketara egitea baino ez bada ere— benetako helburua askoz ere zabalagoa bilakatzen da eta proiektuaren zehar betebeharrezko diren ekintzen guztietatik isurtzen da: liburutegiko erabiltzaileekin lantaldeen osaketa, argazkien bilketa, argazki horien dokumentazioa, digitalizazio eta softwaren bitartez manipulaziorako ikastaroak, katalogazioa, ikus-entzunezko muntaiaren eraiketa, Interneten bitartez elkarrekin komunikatzeko behar diren tresnen lanketa, ingelesaren berrikuspena, eta azkenik herrien arteko erakusketaren antolaketa... eta dena erabiltzaileek beraien egina, arduradunak diren horiek aktibitate guztietarako beharrezkoak diren hezkuntza ekintzak kudeatzeko.

Azkenik eta helburuei buruz hitz egitean azpimarratzekoa da PAP-Grundtvig programa malgutasun handikoa dela, eta horregatik posiblea da lan talde batean dauden elkarkide bakoitzak helburu ezberdinak finkatzea. Gure elkarkide bretoi eta finlandiarren kasuan errepikatu behar da ez direla liburutegi publikoak eta horregatik katalogazioa, dokumentuen hedatzea edo ondarearen babesa ez dute batere aurreikusten.

Bresteko Kerourien Multimedia Zentroan emakume helduen gaurkotzerako hezkuntzan egiten dute indarra —guk erabiltzen ditugun tresnak eta prozesu bera segituz—. Jakina, haiek bildu-

ko duten argazki bildumaren gaia bestelakoa da, eta emakumeak Kerourien auzoan jokatzen duen paperean eta bere garrantzian oinarritzen da.

Hämeenlinako Settlementtiren kasuan etorkinen gazteengan dute ikusmira, gehien bat errefuxiatu politikoak direnak: programan parte hartzen duten gazteek, beste lekuetan ez bezala, badakite teknologi berriaz eta ohituta daude tresna hauek erabiltzen, baina ez dakite batera bizitzera joan diren lekuaz. Hämeenlinan hautatu duten lan egiteko bidea da argazki zaharren berreskuratze —normalean leku publikoetatik— gaur egungo egoerarekin alderatzeko. Honela etorkinen ikasi eta ulertu egin dezakete harrera egin dien herriaren nondik norakoak.

Metodologia

0. Proiektuaren abiapuntua hasieran luze azaldutako izen emate prozesua izan zen, baina bai azpimarratzeko duen ezaugarri batekin: “Zentroak” (liburutegiak, helduen eskolak, akademiak...) eta ez erakundeak dira eskaerak egiten dituztenak eta mintegietan parte hartzen dutenak. Honek esan nahi du haiek beraiek —eta inork gehiagorik ez— direla informazio guztia kudeatzen dutenak, eta egoera hau ez da aldatzen proiektua behin betiko itxura hartzen duenean eta elkarkideak izendatuta gertatzen direnean. Guzti honengatik oinarritzotzat jo dezagun hurrengo puntua:

1. Informazioa. Proiektua Espainiako Agentzi Nazionalak (OAPEE) behin betiko onartua, maila eta helburu ezberdinekin pentsatutako bilkura informatiboak hasi ziren:

—**Administrazioekin bilkurak.** Zergatiak eta proiektuaren nondik norakoak azaltzeaz gain, bilkura hauek balio izan zuten alde praktikoak garbitzeko (lan baimenak, lan denborak, ekintzen esportagarritasuna, tokiak, lanabesak...) herri eta Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko arduradunen aurrean.

—**“Itu” taldeekin bilkurak.** Jakina denez, bilkura hauen zergatia zen erakunde hauen interesa sortzea eta elkarte eta partikularren parte hartzea suspertzea. Aurizberriko kasuan itu taldeak ziren emakumeek osatutako lau elkarte ezberdinak, eta Kortekoan aldiz, gurasoen elkarteak, musika taldea, elkarte kulturalak, kirol elkarteak...

—**Jende guztiari irekitako bilkurak.** Liburutegiak ezin dio inolaz ere eskaintzen dituen zerbitzuak inori murriztu, honengatik, eta nahiz eta talde batzuek nolabaiteko lehenasuna izan, ezinbestekoak ziren mota honetako bilkurak, hots, gizarteari bere osotasunean proiektuaren berri eta honek irekitzen zituen aukeren berri ematea. Azpimarratzekoa da, nola askotan laguntzarik prezia-tuena heldu zaigun “ahaztutako” liburutegiko erabiltzaileen eskutik: trebetasun bitxiko pertsonak, aldez aurretik —urteetako lana egin— jasotako argazki zaharren bilduma ederren jabeak, argazkigintzak jantziak, erretiratuak ikasteko gogo izugarriekin eta komunitateari bere denbora eskaini nahi dietenak, informatikan edo hizkuntzatan trebeak...



2. **Lan taldeen osaketa.** Lehenengo bilkura horien ondoren, argazkiak bilatzeko taldeak antolatu ziren, Aurizberriko kasuan mendialdeko herri ezberdinetan zehar, eta Kortekoan etxe eta bilduma partikularren artean. Talde hauek antolatzean iritzi jakin batzuk ezarri behar izan ziren non zehaztu nola jokatu behar baitzen liburutegiak maileguan jasoko lituzkeen dokumentuekin. Hona hemen garrantzitsuenak: mailegatazailea pertsona bakar batekin izango zen harremanetan, eta beti, proiektuko laguntzaile berdinarekin. "Bilatzaileak" argazkiaren jabea-ri zehaztasun osoz azaldu beharko lioke zertarako nahi genuen materiala (erakusketa bat egiteko, DVD bat argitaratzeko, Interneten bitartez bidaltzeko...) eta baita zer-nolako prozesua segituko genukeen dokumentuekin ere (eskaneatu, katalogatu, editatu...). Laguntzaile berak argazkiari jarraipena egitearen arduraduna eta itzulketa bermatzeko arduraduna izan behar luke, (jaso zen egoera berdinean, pertsonalki eta ahalik eta lasterren, jakina). Itzulketetako Aurizberriko kasuan aste beteko epea ezarri zen eta hilabetekoa Kortesen. Azkenik, mailegatazaileei argazki guztiekin argitaratuko zen DVDaren kopia eskainiko zitzaizen, telebista arrunt batean ikustekoa.

3. **Ikas beharren ezarpena.** Lehenbiziko argazkiak liburutegira heldu baino lehen egutegi bat zehaztu behar genuen ekintzen ordena finkatuz, esaterako ezinbestekoa baitzen jakitea eskaneatzen e-mailez bidaltzen baino lehen. Ordutegiak denentzat aproposak (eta liburutegiko ordutegirako egokiak) finkatu, taldeen tamaina zehaztu, irakasleria bilatu eta hitzartu..., horri guztiari ekin genion.

40

Aurizberrin izandako emaitzak ikastarotxo aunitzen ezarpena sei pertsonentzat lantzeko izan zen. Arras zehatzak izanik, ikastarotxo bakoitza bi ordutako bi saiokoa baino ez ziren. Egun jarraituetan egitekoak eta ikuspegi erabat praktikotik aurreikiak ziren: ez zen "informatika" irakatsi behar; ez zen eragile sistemez mintzatzeko, direktorioen arbolez edo aplikazio bakoitzaren ahalmenaz. Eskaneatzen, DVD muntatzeko programa bakar bat erabiltzen, web posta zerbitzu bakarra erabiltzen, bitakora mota bakar batean bloga sortzen eta posteatzen irakatsiko zen.

Lan metodologia erabat kooperatibotzat hartuko genuen: ikasi beharrekoak erabiltzaileen beraien trebetasunez beteko genituen, eta behar izanez gero bakarrik kanpoko irakasleei deitzera joko genuen. Lan administratiboak liburuzainak garatuko zuen.

Irakasleriari buruz, lan kooperatiboaren ideia arras ongi onartu zen: hiru boluntario, liburuzainaz gain, ikastarotxoak emateko ardura hartu zuten.

Materiala eta lanabesen auzia ez zen batere zaila, liburutegiak berak edo Gundtvig programaren dirulaguntzak beteko zutelako.

Kostesko kasuan, eskema bera jarraitu zen, baina handiago den herri baten ezaugarrietara moldatuta: hiru hilabetetarako plangintza egin zen, non ikastaroak lau eta hamar lagunen arteko kopururako ziren, bi orduetako bi saioetan banaturik.

4. Aurizberrin orain arte emandako ikastaro-tailerrak honako hauek izan dira:

—Eskanerra eta antolatzea (8)

—Irudien manipulazioa (4)

- Ikus entzuneko muntaiak (6)
- Komunikazioa: posta elektronikoa (2)
- Komunikazioa: blogak eta foroak (4)
- Komunikazioa: English level 0 (2)

Izandako ikasleen kopurua: 104.

Kortesen berriz, 2008ko ekainaren arte emandako ikastaroak 16 izan dira:

- Eskanerra eta antolatzea (4)
- Web bilduma. Picasaweb eta Flickr (2)
- Irudien manipulaztea. Picasa eta Xnview (2)
- Ikus entzuneko muntaiak. Memories-on-tv (2)
- Komunikazioa: posta elektronikoa. Yahoo eta Gmail (2)
- Komunikazioa: blogak eta foroak (2)
- Adobe Photoshop Lightroom (1)

Izandako ikasleen kopurua: 131.

5. Herrien arteko truke bisitaldiak. Argazkien bilketa bukatuta, eta ikastaroen erdian geundelarik aurreikusitako sei bisitaldien artean bigarrena heldu zitzaigun. Korteko hasierako bilkura lehenbizikoa izan bazen, bigarren hau —eta lehenbizikoa aldikoz ikasleen parte hartzearekin— Hämeenlinnan izan zen 2008ko martxoan. Hiru egunetako bisitaldi honetan leku eta erakunde interesgarri aunitz ikusteko parada izan zen, esate baterako, Hämeenlinnako herri liburutegia, Sibelius Musikako Institutoa, Helduen Hezkuntzarako Verkathedas Zentroa, edo Hämeenlinna Settlementik duen Zentro Multikulturala. Beste aldetik, koordinatzeko lanak betetzeaz gain, garrantzitsuenak dudarik gabe, hiru herrialdetako ikasleen arteko hartu-emanak izan ziren, eskarmentuak aldatzen, proiektu pertsonalen berri trukatzeko...

Artikulu hau idazteko momentuan ez da izan oraindik hirugarren topaketa, zein Britainiako Brest hirian izanen den 2008ko irailaren 10, 11 eta 12an. Kerouriengo Espace Publique Multimédia da antolatze lanen arduraduna, eta horregatik momentuz ezin dugu bilkura horren zehaztasunik eman. Dena den, honen berri —dugun proiektuari buruzko informazio eta dokumentazio guztiarekin gertatzen den bezala— zuen esku jarriko dugu nahi izanez gero.


6. Tokiko erakusketak. Bisitaldiak burutu ondoren herri ezberdinen taldeak norberaren erakusketak antolatzen hasiko dira. Erakustaldietan mota guztietako materialak egonen dira (DVDak, artikuluak, foiletoak...), eta ez bakarrik berreskuratutako argazkiak. Elkarkide bakoitzak ikusi behar izanen du zeintzuk diren hautatutako helburu zehatzak materialen hautaketa egin orduko. Gure kasuetan erakusketen garrantzia zeran datza: alde batetik liburutegia ikusgarria bihurtzeko asmoa dela eta, eta bestetik, modu praktikoa batez erakutsi ahal izateko nola liburutegiak eskaintzen dituen “bertze motako” zerbitzuak, zeinek ez baitira “betikoak” inolaz ere, esate baterako, tokiko dokumentuak sortzeko ahalmena.

7. Herrien arteko erakusketak. Tokiko erakusketatik hautatuko den materialez baliatuko gara herrien arteko erakusketekin parte hartzeko. Topa-gune hauek honako leku eta datetan izanen

dira: Hämeenlinna (2008ko urrian) Brest (2009ko martxoan) Aurizberri-Espinal y Cortes (2009ko ekainean).

Emaitzak

Proiektuaren erdialdean egonik emaitzak izugarri onak izan direla esan genezake, eta aldez aurretik ezarritako helburuak bete direla ere: liburutegiko erabiltzaileek irudi katalogo digital baten sorreran parte hartu dute, burututako hezkuntza ekintzak arrakastatsuak eta ikaslez beteak izan dira, liburutegiko erabiltze berriak egin izan dira eginiko ekintzen inguruan hurbildu direnen artean, erabiltze zaharrek aukera berriak aurkitu dituzte liburutegian baita... kontaktua, elkarren ezaguera, trukaketa eta beste herrialde eta erakundeetako pertsonekin izugarritzko aurkikuntza suertatu dira gure inguruko elkarte eta taldeetarako. Orain, haiek beraiek dira Europar kontaktu eta proiektu berrietan beren kabuz hasi nahi dutenak... Orain arte argitaratu gabeko dokumentu aski dugu argitalpen txiki bat egiteko edo erakusketa eder bat antolatzeko adinakoa... hainbat erabiltzaile beraien argazki zaharren bilduma partikularrak digitalizatu, antolatu eta muntatu egin dituzte... benetan harro gaude egindakoarekin.



Ondorioak

42

—Helburu betegarriak, baliabide xumeak eta prozesu luzea eta lasaia pentsatutakoa egin ahal izateko, hauxe da erabili dugun formula.

—Aurkitu ditugun zailtasunak anitzak izan dira (ezberdintasun kulturalak, hizkuntzen aniztasuna, baliabideen diferentziak...) baina denak gaindi daitezke.

—Liburutegien arteko elkar lana, haien diferentzi eta berdintasun guztiekin izugarritzko abe-rastasuna ekarri digu, bai zailtasun aurrean ikuspuntu diferentek kontuan izateko bai eta erantzunak emateko orduan. Liburutegien arteko, ez baina sareen bamean baizik eta binaka, arras baliagarria da.

—Guk nahi duguna herri liburutegia berpiztea da, elkartruke eta formakuntzarako topa-gune bezala izan behar duen balioa emanaz. Bestetik gure ondare grafikoaren berreskuratze eta behar bezalako balio emate lortu nahi dugu. Herri liburutegia iragana eta etorkizunaren arteko zubia izan dadila nahi dugu.

—Europako Batasunean aurki daitezken truke-programek gurea bezalako proiektuak errazten dituzte eta oso garrantzitsua dena, ekonomikoki egingarriak bihurtzen dituzte.